

Sin./Fdo.: ENRIQUE SAEZ DE LA ROSA - 2026-07-30
Ord./Sust.: IZASKUN PASCUA RIÑONES
LANKIDETZA SUSTATZEKO ETA DIBERTSITATEA KUDEATZEKO ATAL.BUR.
JEFE/A SECCION DE COOPERACIÓN Y GESTIÓN DE LA DIVERSIDAD

Sin./Fdo.: ENRIQUE SAEZ DE LA ROSA - 2026-07-30
Ord./Sust.: MIREN GOTZONE AGUINAGA CAREAGA
GIZARTE KOHESIOA SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE COHESIÓN SOCIAL

Sin./Fdo.: IGNACIO RODRIGUEZ PUERTAS - 2026-07-30
GIZARTE KOHESIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE COHESIÓN SOCIAL

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko foru diputatuaren **FORU AGINDUA** zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza izenduna ematen baitzaio Asociación Zinegoak Elkartea-ri, "Bilboko LGTBIQ+ 23. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoan Jaialdia/ 23º Festival de cine y artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao" proiektua finantzatzeko.

ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEAren (IFZ: G95026639), helburua da sexu-, genero- eta harreman-aniztasuna ikusaraztea, zinemaren eta arte eszenikoen bidez, eta kultura esku-hartze sozialerako tresna gisa erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasuna, gizarteratzea eta eraldaketa sustatzeko.

ZINEGOAK 2004an sortu zen zinema-erakusketa txiki gisa, LGTBIQ+ komunitatearen eta Bilboko eta Euskal Herriko gizartearen artean partekatutako espazio berri bat izateko asmoarekin; eta kalitate handieneko zinema queer nazionala eta nazioartekoa publikoari hurbiltzeko asmoz. Programazioan, saritutako eta aitortutako lanak eta ekoizpen txikiagoak baina ezinbestekoak daude, errebindikazio-izaeragatik.

22 edizioen ondoren, ZINEGOAK deialdia egiteko gaitasuna duen eta etengabe hazten ari den ekitaldi bihurtu da, eta, aldi berean, sortu zenetik egokitu egin da. Gaur egun, diziplinarterako kultura-proiektu bihurtu da, 4 arlo bereiziz osatua:

- Filmen eta arte eszenikoen programazioa
- Eztabaida, gogoeta eta pentsamendua
- Kultura-industria, berrikuntza eta aniztasuna.
- Audientzien garapena eta banaketa

ORDEN FORAL de la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, por la que se concede una subvención directa nominativa a la Asociación Zinegoak Elkartea para la financiación del proyecto "Bilboko LGTBIQ+ 23. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoan Jaialdia/ 23º Festival de cine y artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao".

La entidad ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEA (NIF: G95026639) tiene como objetivo promover la visibilización de la diversidad sexual, de género y relacional a través del cine y las artes escénicas, utilizando la cultura como herramienta de intervención social para fomentar la igualdad, la inclusión y la transformación social en el País Vasco.

ZINEGOAK nace en 2004 como una pequeña muestra de cine, con la ambición de ser un nuevo espacio compartido entre la comunidad LGTBIQ+ y la sociedad bilbaína y vasca; y con la vocación de acercar al público el cine queer nacional e internacional de la mayor calidad. En su programación conviven obras galardonadas y reconocidas junto a producciones más pequeñas pero imprescindibles por su carácter reivindicativo.

Tras 22 ediciones, ZINEGOAK se ha convertido en un evento con capacidad de convocatoria y constante crecimiento que, a la vez, se ha adaptado desde su creación convirtiéndose en la actualidad en un proyecto cultural interdisciplinar formado por 4 áreas diferenciadas:

- Programación de películas y artes escénicas
- Debate, reflexión y pensamiento
- Industria cultural, Innovación y diversidad
- Desarrollo de audiencias y distribución





Dirulaguntza honen xedea lehenengo arloari dagokio. 2026an, Zinegoak beste alderdi batzuetan jarriko du arreta, singularrean eta munstroaren irudian, arautik ateratzen den horren metafora gisa. Begirada ireki eta interseksionaletik, jaialdiak dibertsitate sexualari, orientabideei, identitateei, genero-adierazpenei eta sexualitateak zeharkatzen dituen beste elementu batzuei lotutako ezberdintasunak, identitate disidenteak eta gorpuztasun anitzak balioestea proposatzen du.

Programazioa ekainaren 22tik 29ra egingo da Bilboko ohiko egoitzetan, baina izena emateko egutegia aurreko irailean hasiko da, parte hartzeko oinarriak bidalita. Jasotako lan guztietatik, 1700 lan inguru, 15 eta 20 artean aukeratzen dira film luzeetarako eta 50 film laburretarako.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026. urterako aurrekontu orokorretan izenduntzat jo da aipatu dugun dirulaguntza; hortaz, zuzenean eman ahal izango da (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, 20.2.a artikulua).

Zuzenean emango diren dirulaguntza horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren artikulatua bete behar dute (foru-arau horrek arautzen du Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra), aplikagarri zaien guztian, batez ere II. titulua, emandako dirulaguntzak itzularazteko araubidea arautzen duena, eta IV. titulua ("Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak"). Halaber, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-arauak bete behar dituzte.

2026ko ekitaldiko aurrekontuetan izendun gisa esleitutako dirulaguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, dirulaguntza horiek emateko eskumena Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasuneko foru diputatuak du, 34/2010 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian (Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, "169/2014 Foru Dekretua") xedatutakoaren arabera, 169/2014 Foru Dekretua aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 9ko 67/2026 Foru Dekretuak egindako aldaketarekin bat etorriz.

Ebazpen hau izapidetzen ari da dirulaguntza izendun hau Estatu Laguntza ez dela zehazten duen berariazko txostena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

El objeto de la presente subvención corresponde a la primera de las áreas. En el año 2026 Zinegoak pondrá el foco en la otredad, en lo singular y en la figura del monstruo como metáfora de aquello que se sale de la norma. Desde una mirada abierta e interseccional, el festival propone poner en valor las diferencias, en las identidades disidentes y las corporalidades diversas vinculadas a la diversidad sexual, las orientaciones, identidades y expresiones de género así como otros elementos atravesados por la sexualidad.

La programación se desarrollará del 22 al 29 de junio en sus sedes habituales de Bilbao, aunque el calendario de inscripción se inicia el septiembre anterior con el envío de las bases de participación. Del total de obras recogidas, alrededor de 1700 obras, se seleccionan entre 15 y 20 títulos para largometraje y unos 50 para cortometraje.

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2026 han considerado como nominativa la subvención a la que hacemos referencia por lo que la misma podrá concederse de manera directa (artículo 20.2.a de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral).

Estas subvenciones directas están sometidas al articulado de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, en lo que le resulte de aplicación, y especialmente al Título II que regula el régimen de reintegro de las subvenciones concedidas, al Título IV, Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones, a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y al resto de normas de carácter administrativo aplicables.

Habida cuenta de la cuantía de las subvenciones consignadas de forma nominativa en los presupuestos del ejercicio 2026, es competente para su concesión la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, conforme a lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 34/2010, así como en la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, de aprobación del Reglamento General Presupuestario ("*Decreto Foral 169/2014*"), de acuerdo con la modificación introducida por el Decreto Foral 67/2026, de 9 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifica el Decreto Foral 169/2014.

Se incorpora a la tramitación de la presente resolución el presente informe específico que determina que la presente subvención nominativa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea.





Ondorioz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari honako proposamen hau egiten zaio:

En su virtud se eleva a la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la siguiente propuesta de:

FORU AGINDUA

Lehenengoa.- ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEARI (IFZ: G95026639), erakundeari itzuli behar ez den HOGEITA HAMAR MILA euroko (30.000 €) dirulaguntza ematea 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren 45100 partidaren kontura («Gizarte Kohesioa» izeneko 232115 programaren barruan); partida hori Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren 0906 organikoan jasotzen da (2022/0024 proiektua), proiektu hau finantzatzeko: “Bilboko LGTBIQ+ 23. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoan Jaialdia/ 23º Festival de cine y artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao”.

Dirulaguntza hau Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.a artikuluan xedatutakoarekin bat ematen da. Izan ere, proiektuaren ezaugarriak direla-eta, ezinezkoa da haiek deialdi publiko batera aurkeztea.

Bigarrena.- Emakidak babesten duen aurrekontu-kreditua 232115 programako 4. kapituluko (Transferentzia arruntak) kreditu bat da, eta, beraz, funtsak ezin izango zaizkie aplikatu kreditu horri egotz dakizkiokeen gastuei dagozkien izaera eta helburu desberdineko gastuei.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta egonik, beharrezkoak direnak eta zalantzarik gabe proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa foru agindu hau onartzen denean ordainduko da. Laguntza eman eta ordaindu ahal izateko, entitateak zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatu beharko du. Egoera hori dirulaguntza ematen den unean, obligazioa aitortzen denean eta ordaintzen denean egiaztatu eta mantendu beharko da, eta hori espedientearen justifikatuko da, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritz.

Dirulaguntza jasoko duten ekintza guztiak 2026ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira.

ORDEN FORAL

Primero. - Conceder a la entidad ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEA (NIF: G95026639) una subvención no reintegrable por importe de TREINTA MIL EUROS (30.000) € del presupuesto del ejercicio 2026, con cargo a la partida presupuestaria 45100, del programa 232115, Cohesión Social, recogida en el orgánico 0906 del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, proyecto 2022/0024, para la financiación del proyecto: “Bilboko LGTBIQ+ 23. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoan Jaialdia/ 23º Festival de cine y artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao”.

Esta subvención se otorga en función de lo establecido en el artículo 20.2.a de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, dadas las características del proyecto que imposibilitan su presentación a una convocatoria pública.

Segundo. - El crédito presupuestario que ampara la concesión, es un crédito del capítulo 4 “Transferencias corrientes” del programa 232115 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

El abono del importe de la subvención será realizado a la aprobación de la presente Orden Foral. La concesión y el pago de la ayuda queda condicionada a la acreditación por parte de la entidad del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social, circunstancia esta que deberá acreditarse y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que se justificará en el expediente de conformidad, con lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Todas las acciones objeto de subvención deberán ser realizadas con anterioridad al 31 de diciembre de 2026.





Hirugarrena.- Diruz lagundutako erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren berariazko baimena eskatu beharko du hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta ekintza gauzatzean aldaketa esanguratsuak egiteko. Aldaketa esanguratsutzat jotzen da aurrekontuaren partida bakoitzerako onartutakoaren % 10etik gorako aldaketa. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, betiere dirulaguntzaren xedea betetzat jotzen bada, eta, nolana ere, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik dirulaguntzak edo laguntzak jasotzen badira, dirulaguntza emateko ebazpen hau aldatu ahal izango da.

Erakunde onuradunak gastuak justifikatzeko kontuaren bidez justifikatu beharko ditu ekintzak, Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrela, amaierako memoria bat aurkeztuko da, lanen deskargu tekniko eta ekonomikoa, fakturak, ordainketen banku-egiaztagiriak – proiektuaren kostu osoaren % 100ari dagozkionak – barne direla diruz lagundutako ekintzaren Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza – 2027ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko da – eta gainerako erakunde finantzatzaileena, bai eta eskatzen zaizkion eta justifikaziorako beharrezkotzat jotzen diren agiri guztiak ere.

Laugarrena. - Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioari buruzko baldintzak eta debekuak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27eta 29. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Ebazpen hau izapidetzen ari da dirulaguntza izendun hau Estatu Laguntza ez dela zehazten duen berariazko txostena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. - Erakundeak berariaz adierazi beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso duela horien zabalkundea, zabalkundea edo, hala badagokio, argitalpena dakarten jardura guztietan. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa agertuko da.

Seigarrena. - Erakunde onuradunak honako arau hauetan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete behar ditu: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu bateratua onartzen duena; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritako Legea.

Tercero.- La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso de la Diputación Foral de Bizkaia para llevar a cabo cambios significativos en la ejecución de la acción con respecto a lo previsto inicialmente. Se entiende por cambio significativo una variación superior al 10% de lo aprobado para cada partida del presupuesto. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de esta y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la presente resolución de concesión.

La entidad beneficiaria vendrá obligada a justificar la realización de las acciones mediante cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

De este modo, se presentará una memoria final, incluyendo descargo técnico y económico de los trabajos, facturas, justificantes bancarios de los pagos, correspondientes al 100% del coste total del proyecto, que incluye la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia de la acción subvencionada, que deberá realizarse con anterioridad al 31 de marzo de 2027 y la del resto de entidades financiadoras, así como a aportar cuanta documentación le sea requerida y que se considere necesaria para la justificación.

Cuarto. - Los requisitos y prohibiciones relativos a la subcontratación de las actividades subvencionadas se regirán por lo dispuesto en el artículo 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en el artículo 53 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

Se incorpora a la tramitación de la presente resolución el informe específico que determina que la presente subvención nominativa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea.

Quinto. - La entidad deberá hacer constar expresamente la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia en todas aquellas actividades apoyadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas. Para ello, valdrá con hacer figurar el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sexto. - La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres, en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.





Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestu beharko dute, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko dute. Era berean, sexuaren arabera desagregazioa egingo da dirulaguntza honen xede den jardueraren dela-eta egin daitezkeen datuen aurkezpenean.

Zazpigarrena.- Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, dirulaguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezartzen duenari kalterik egin gabe.

Hala ere, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoa betez, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Zortzigarrena. - Datu pertsonalen tratamendua Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera egingo da.

Horrela, justifikazio-kontuarekin batera emandako datu pertsonalak dirulaguntza ematea justifikatzen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko erabiliko dira, eta Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Sailko Gizarte Kohesio Zuzendaritza Nagusia izango da horren tratamenduaren arduraduna.

Ez da aurreikusten datu pertsonalak lagatzea, legezko betebeharra izan ezik, edo estatistika- edo ikerketa-helburuetarako, ukitutako pertsonaren zalantzarik gabeko baimenarekin.

Ukitutako pertsonen datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea dute, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Gizarte Kohesioa Zuzendaritza Nagusira (Ledesma Kalea 10 Bis, 48001 Bilbao).

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género. Igualmente, se realizará una desagregación por razón de sexo en la presentación de datos que se pudiera efectuar con motivo de la actividad objeto de esta subvención.

Séptimo. - La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

No obstante, en cumplimiento de lo establecido por el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Octavo. - El tratamiento de los datos personales se hará con sujeción a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de Abril de 2016.

De esta manera, los datos personales aportados junto con la cuenta justificativa se destinarán a comprobar el cumplimiento de los requisitos que justifican la concesión de la subvención, siendo la Dirección General de Cohesión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la responsable de su tratamiento.

No se prevén cesiones de datos personales, salvo obligación legal, o para fines estadísticos o de investigación con el consentimiento inequívoco de la persona afectada

Las personas afectadas tienen derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento, enviando un escrito a la Dirección General de Cohesión Social, sita en C/ Ledesma 10 bis 8º, 48001 Bilbao.





Bederatzigarrena. - Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Dirulaguntzei buruzko Foru Erregelamendua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua; eta aplikatu daitezkeen beste edozein xedapen.

Hamargarrena Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio ebazpen honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hamaikarrena.- Dirulaguntza jasoko duen erakundeak berariaz eta idatziz onartu beharko ditu ebazpen honetan adierazitako dirulaguntzaren baldintzak.

Hamabigarrena.- Erakundeak bere kabuz erabaki dezake dirulaguntza itzultzea. Itzulketa ordainketa-gutun bidez egingo da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofiziala erabiltzen eta honako hauek adierazita: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala edo berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia.

Hamahirugarrena.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren arau-hauste administratibo gisa tipifikatutako ekintzen eta ez-egiteen erantzule den erakundea bertan araututakoaren arabera zehatuko da.

Hamalagarrena. - Erakundeak ebazpen honetan ezarritakoa betetzen ez badu, edo dirulaguntza eman zeneko xederako erabiltzen ez badu, dirulaguntza edo laguntza eragin zuen jardura egiten ez badu edo dirulaguntzaren xede zehatzetarako erabili dela justifikatzen ez badu, dirulaguntza ondorioz gabe geratuko da, eta erakunde onuradunak itzuli egin beharko ditu emandako eta jasotako zenbatekoa eta aplikatzekoak diren legezko interesak, dagozkion gainerako ekintzak alde batera utzi gabe.

Kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, legezko ondorioetarako.

Hori guztia Foru Aldundiak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. tituluaren ezarritakoaren arabera

Noveno. - Para todo lo no previsto en la presente resolución será de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Décimo.- Se faculta a la Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para la ejecución y cumplimiento de lo dispuesto en la presente resolución.

Decimoprimer.- La entidad beneficiaria de la subvención deberá aceptar expresamente y por escrito las condiciones de la subvención expresadas en la presente resolución.

Decimosegundo. - La entidad podrá efectuar la devolución de la subvención por propia iniciativa. La devolución se deberá realizar mediante las correspondientes cartas de pago según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, consignando el importe a devolver (principal o intereses de demora), el código-modelo; y el motivo del ingreso.

Decimotercero.- La entidad responsable de las acciones y omisiones tipificadas como infracciones administrativas en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, serán sancionados de acuerdo con la regulación establecida en la misma.

Decimocuarto. - En el supuesto de que la entidad incumpliera lo establecido en la presente resolución, o no utilizara la subvención para el destino específico para el que se concedió, no realizase la actuación que dio origen a la subvención o ayuda o no justificase su aplicación a los fines determinados para los que se interesó, la subvención quedará sin efecto y la entidad beneficiaria vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

Todo ello de conformidad con lo establecido en el Título II de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.





Hamabosgarrena. - Erakunde onuradunak Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. tituluaren zehaztutako publikitate aktiboko eskakizunak bete beharko ditu.

Hamaseigarrena. - Araudi orokorra.

Foru agindu honetan xedatuta ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: urriaren 31ko 39/2015 Legea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea; maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta Dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua.

Hamazazpigarrena. - Ebazpen hau jakinaraztea erakunde onuradunari eta beraren berri ematea Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Zerbitzu Orokorreari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

Decimoquinto. - La entidad beneficiaria deberá cumplir las exigencias de publicidad activa detalladas en el Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Decimosexto. - Normativa general.

En lo no previsto en la presente Orden Foral, será de aplicación lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre; así como la normativa contemplada en el Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia; la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Decreto Foral 34/2010, 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

Decimoséptimo. - Notificar la presente resolución a la entidad beneficiaria y comunicarla al Servicio de Servicios Generales del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.





I. ERANSKINA

PARTIDAK	GUZTIRA	BFA	Eusko Jaurlaritza (Kultura eta hizkuntza politika saila)(	BILBOKO udala (Berdintasuneko atala)	BILBOKO udala (Kultura atala)	Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales	Diru-sarrera propioak
Kontratatutako langileak	53.000 €	20.000 €	15.000 €	6.000 €	3.000 €	-	9.000 €
Filmen gastuak	11.000 €	1.260 €	2.985 €	-	-	-	5.955 €
Artisten gastuak	2.000 €	450 €	-	-	-	-	1.550 €
Aretoen alokairua	6.000 €	420 €	400 €	-	800 €	4.000 €	380 €
Bidaia gastuak	8.000 €	-	975 €	1.350 €	-	2.100 €	3.575 €
Ostatuak	7500 €	-	4.000 €	-	-	-	3.500 €
Asegurua	800 €	350 €	-	-	-	-	450 €
Hedapena eta publizitatea	6000 €	-	2.640 €	-	-	-	3.360 €
Kanpo kontratazioak	27.000 €	4500 €	3.100 €	1.350 €	1.200 €	10.400 €	6.450 €
Edizioa, material grafikoa, ikus-entzunezkoa, etab.	18.000 €	870 €	7.500 €	1.000 €	-	3.500 €	5.130 €
Ekoizpen eta muntaketa gastuak	11.000 €	-	8.400 €	-	-	-	2.600 €
Aholkularitza	4000 €	1.400 €	-	-	-	-	2.600 €
ZUZENeko KOSTUAK, GUZTIRA	154.300 €	29.250 €	45.000 €	11.250 €	5.000 €	20.000 €	44.550 €
Kontsumoak	2.700 €	750 €	-	-	-	-	1.950 €
Besteak	2.500 €	-	-	-	-	-	2.500 €
ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA	5.200 €	750 €	-	-	-	-	4.450 €
GUZTIRA OROKORRA	159.500 €	30.000 €	45.000 € ebatzi gabe	10.500 €	5.000 €	20.000 € ebatzi gabe	49.000 €





II. ERANSKINA

ERAKUNDEA:

GASTUEN ETA SARREREN EGOERA-ORRIA

ALDIA:

A) GASTUAK		B) SARRERAK	
1	Hornikuntzak	1.	Negozio-zifra garbia
a)	Merkatugaien kontsumoa (600, 610)	a)	Salmentak (700,701,703)
b)	Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa (601, 602, 611, 612)	b)	Zerbitzu prestazioak (705)
c)	Beste enpresa batzuek egindako lanak (607)		
d)	Salgaien, lehengaien eta beste hornigai batzuen narriadura (693)	2.	Izakeren aldakuntza (gehikuntza) (71)
2	Izakeren aldakuntza (murrizketa) (71)	3.	Beste ustiapen-sarrera batzuk
		a)	Sarrera osagarriak eta kudeaketako beste sarrera batzuk (75)
3	Langileria-gastuak	b)	Ustiapenerako dirulaguntzak. (740, 747))
a)	Soldatak, lansariak eta antzekoak (640)		Bizkaiko Foru Aldundia
b)	Gizarte zamak (erakundearen kargurako Gizarte Segurantzak eta beste batzuk) (642)		Udalak
			Eusko Jauriaritza
6	Beste ustiapen-gastu batzuk		Beste batzuk
a)	Kanpoko zerbitzuak (62)	4.	Ibilgetu ez-finantzariako dirulaguntzen egozpena (746)
	Errentamenduak eta kanonak		
	Konponketak eta artapena	5.	Finantza-sarrerak (76)
	Profesional lokabeen zerbitzuak		
	Garraioa		
	Aseguru-prima		
	Bankuen zerbitzuak eta antzekoak		
	Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak		
	Uraren, argiaren eta bestelakoen hornikuntza		
	Beste zerbitzu batzuk		
b)	Zergak (63)		
c)	Galerak, narriadurak eta hornik. aldaketa, merkataritza eragiketengatik (69)		
d)	Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk (659)		
7	Ibilgetuaren amortizazioa (68)		
8	Finantza-gastuak (66)		
	GASTUAK GUZTIRA Superabita		SARRERAK GUZTIRA Defizita





GASTUAREN KONTZEPTUA: (zehaztu gastu-kontzeptuetariko bakoitzerako)

(Kopuruak eurotan)

[illegible]



ANEXO I

PARTIDAS	TOTAL	DFB	Gobierno Vasco - Cultura y Polt. Lingüística	Ayuntamiento de Bilbao (Área de Igualdad)	Ayuntamiento de Bilbao (Área de Cultura)	Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales	Aportaciones de la propia entidad
Personal contratado	53.000 €	20.000 €	15.000 €	6.000 €	3.000 €	-	9.000 €
Gastos películas	11.000 €	1.260 €	2.985 €	-	-	-	5.955 €
Gastos artistas	2.000 €	450 €	-	-	-	-	1.550 €
Alquiler de salas	6.000 €	420 €	400 €	-	800 €	4.000 €	380 €
Viajes	8.000 €	-	975 €	1.350 €	-	2.100 €	3.575 €
Alojamientos	7500 €	-	4.000 €	-	-	-	3.500 €
Seguros	800 €	350 €	-	-	-	-	450 €
Difusión y propaganda	6000 €	-	2.640 €	-	-	-	3.360 €
Contrataciones externas	27.000 €	4500 €	3.100 €	1.350 €	1.200 €	10.400 €	6.450 €
Edición, material gráfico, audiovisual, etc	18.000 €	870 €	7.500 €	1.000 €	-	3.500 €	5.130 €
Gastos de producción y montaje	11.000 €	-	8.400 €	-	-	-	2.600 €
Asesoría	4000 €	1.400 €	-	-	-	-	2.600 €
TOTAL COSTES DIRECTOS	154.300 €	29.250 €	45.000 €	11.250 €	5.000 €	20.000 €	44.550 €
Consumos	2.700 €	750 €	-	-	-	-	1.950 €
Otros	2.500 €	-	-	-	-	-	2.500 €
TOTAL COSTES INDIRECTOS	5.200 €	750 €	-	-	-	-	4.450 €
TOTAL GENERAL	159.500 €	30.000 €	45.000 € (sin resolver)	10.500€	5.000 €	20.000 € (sin resolver)	49.000 €





ANEXO II

ENTIDAD:

ESTADO DE GASTOS E INGRESOS

PERIODO

A) GASTOS		B) INGRESOS	
1 Aprovisionamientos		1. Importe neto de la cifra de negocios	
a) Consumo de mercaderías (600, 610)		a) Ventas (700,701,703)	
b) Consumo mat primas y otras materias consumib(601, 602,611,612)		b) Prestaciones de servicios (705)	
c) Trabajos realizados por otras empresas (607)			
d) Deterioro mercaderías, materias primas y otros aprovisio (693).		2. Variación de existencias (aumento)	(71)
2 Variación de existencias (reducción) (71)		3. Otros ingresos de explotación	
3 Gastos de personal		a) Ingresos accesorios y otros de gestión (75)	
a) Sueldos, salarios y asimilados (640)		b) Subvenciones de explotación (740, 747))	
b) Cargas sociales (S.Social a cargo entidad, otros) (642)		Diputación Foral Bizkaia	
		Ayuntamientos	
6 Otros gastos de explotación		Gobierno Vasco	
a) Servicios exteriores (62)		Otros	
Arrendamientos y cánones			
Reparaciones y conservación		4. Imputación subvenc de inmovilizado no financiero (746)	
Servicios profesionales independientes			
Transporte		5. Ingresos financieros (76)	
Prima de seguros			
Servicios bancarios y similares			
Publicidad, propaganda y relaciones públicas			
Suministros agua, luz y otros			
Otros servicios			
b) Tributos (63)			
c) Pérdidas, deterioro y variac. provisión operac. Comercial (69)			
d) Otros gastos de gestión corriente (659)			
7 Amortización del inmovilizado (68)			
8 Gastos financieros (66)			
TOTAL GASTOS		TOTAL INGRESO	
Superávit		Déficit	





ANEXO III

RELACIÓN CLASIFICADA DE GASTOS

CONCEPTO DE GASTO: (elaborarlo para cada uno de los conceptos de gasto)
(cifras en euros)

Fecha Factura	Proveedor /Nº de factura	Factura			Imputado al proyecto		Fecha pago
		Base imponible.	IVA soportado	Total (€)	%	Importe (€)	
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
				Total gasto imputado			



